

Isun festa

Miren Azkarate
Badiola

Donostiako Zuatzu Parke Teknologikoa ezagutzen duzue? Izenak ez zaitzala nahastu; bulegoz, enpresaz, eta abarrez osatutako poligono bat da. Milaka langileren eguneroko lantokia izateaz gain, joan-etorri tokia ere bada.

Denborarekin, jende kopurua handitzen joan da, eta, diseinatu zuteneko autoak aparkatzeko tokien kopurua, motz geratzen. Eraikin bakoitzak lur azpiko parkingak ditu, bulego bakoitzeko auto bakan batzuek (ez denek)

erabil ditzaketenak. Gainontzeko autodun langileek kalean utzi behar dute kotxea, TAOrik gabeko gunean. Eta ez hor bakarrik (hau ere motz gelditzen baita), espaloian eta azkenean ahal den lekuan aparkatzen dute, idatzita ez dagoen lege bat errespetatuz: «Autoa utzi nahi eta ahal duzun lekuan, baina ez enbarazurik egin gainontzekoei».

Astebete da, baina, Donostiako Udal-tzaingoa misio berri batekin goizero parkera igo eta isunak jarri eta jarri dabilela, baita garabiarekin autoak depo-

situra eramaten ere. Zergatik? Ba aipatu ez badut ere, badagoelako ordaintzen den parking bat ere (parking publiko bat, mozkinak ateratzen dituen jabe partikular batekin!), hutsa egoten dena arrazoi horrengatik.

Bertako enpresaria da isun festa hau eragin duena, bera dirua irabazten ez eta abisu ematea erabaki duena dago-kion lekuan. Oraingoz, askoren haserrea da lortu duen bakarra eta horrek ez du eragin udaltzainek isunak zabal-tzeari uztea. •

Errementaria eta Munilla

Antton Izagirre
Gorostegi

Deabruaren aipamenak ahaztu xamar genituen; haurtzaroan eta gaztaroan geure iruditegian iltzaturiko izaki beldurgarri eta gorrotagarri haren mehatxu eta probokazioak. Berriki, “Errementari” filmaren bidez, topo egin dugu deabruaren irudi berrituekin, haren asmo eta trikimailuekin.

Egia esateko, errementariak infernue-tara bidaiatzera gonbidatu gaituen ho-rretan, han ageri zaizkigun itxura eta

gorpuzkera anitzeko deabruak sinpati-koak, atseginak, iruditu zaizkigu; ia ahaztuak genituen izaki beldurgarri haien lekuan maitagarriak, begikoak.

Egun bertsuan, Munillak ere, ahotan izan du deabrua. Oraingoa, emakume itxuraz irudikatu du. Emakume erradi-kalen itxura omen du deabruak.

Gaurkoan ere, beldurraren lekuan, maitagarriak, ausartak, borrokalariak suertatu zaizkigu haien irudiak. Irudi-men faltsu guztien gainetik kalean po-

zik, gogotsu, emozioz gainezka ikusi di-tugu milaka eta milaka emakume, dea-bruak hartuta, kantuan, dantzan eta oihuka, haien eskubide eta berdintasu-naren alde. Atsegina egin zaigu Martxo-aren 8ko deabru-festa.

Errementariak, aurreko jokabideaz da-mu, infernuetara egin du salto, arima galduaren bila. Munillak damurik ez du izango bere jokabideaz, baina milaka emakume eta gizon egin ditu etsai. Dea-bruak eraman gaitzala! •